



## Pandemia gorabehera, eskualdeko jarduera sozioekonomikoa ona izan da, Bidasoa bizirik-eko Memoriak islatzen duen bezala

*· Urte “berezi” batean, ekintzailatza-sailak 800 pertsona baino gehiago artatu ditu, eta 80 bideragarritasun-plan egin ditu, 2019an egin zituen berberak.*

*·Bidasoa bizirik-ek, Udalarekin batera, Irun Aurrera eta Hondarribia Etxekit suspertzeko planak bultzatu zituen*

**Irun, 2021eko abuztuak 3.-** Bidasoa bizirik-ek gaur goizean aurkeztu du 2020ko Jardueren Memoriaren eta Bidasoa Beherako datu sozioekonomikoen urteko txostena. 2020. urtea Pandemiak eragin handia izan du urte honetan, baina jarduera ez da inoiz gelditu eta Garapen Agentziak aurreikusita zituen proiektu gehienak jarri ditu martxan.

“2020. urtean, une bakoitzeko egoerara egokitu behar izan dugu etengabe, baina jarduera ez da inoiz gelditu. Beti ere herritarren zein enpresa- eta ekonomia-sarearen beharrei erantzuteko zerbitzurik onena eskaintzen jarraitzeko asmoz, Bidasoa bizirik-eko jardueraren giltzarri baitira, ekimen asko on line egin dira, eta arrakasta izan dute. Gainera, itxiera-aldian, agentziak laguntza handia eman zien beren jarduera utzi behar izan zuten enpresa, negozio eta autonomoei, deiak eginez eta etengabe sortzen ari zen informazioa modu ordenatuan emanez”, azaldu du Miguel Ángel Páez Agentziako presidentek.

2020ko jardueratik María Serrano Bidasoa bizirik-eko presidenteordeak nabarmendu ditu “enplegua bilatzeko prestakuntza- eta orientazio-ekintza guztiak, baita berrikuntza eta enpresa-lankidetzak sustatzeko egin direnak ere, hori baita eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko Agentziaren beste ardatzetako bat. Alde horretatik, aipagarriak dira, adibidez, enpresetan egindako berrikuntza ez-teknologikorako proiektuak, pertsona ekintzaileentzako beken programa finkatzea edo ekonomia zirkularreko ekimenak sustatzea”.



## · Bidasoa bizirik zenbakitan

2020an, Ekintzailletza Sailak 816 pertsona lagundu ditu, 80 bideragarritasun-plan egin dira, 447 pertsonak jaso dute prestakuntza ekintzailletza-prozesuetan, eta ia 600 pertsonak parte hartu dute ekintzailletza-ekintzetan Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

Enpresa Sailak, bestalde, 117 enpresarekin lan egin du hobekuntza lehiakorreko eta eraldaketa digitaleko prozesuetan; 210rekin, berriz, informazio- eta kontsulta-zerbitzuan.

Bestalde, El Espaziotik enpleguaren eta prestakuntzaren arloan 1.864 kontsultari erantzun zaie, eta 693 pertsonari lana bilatzen lagundu zaie. Gainera, 103 lan-eskaintza kudeatu dira.

Prestakuntzari dagokionez, azpimarratu behar da Bidasoa bizirik-ek tailerrak eta ikastaroak bizi dugun egoerara egokitu dituela kalitatezko prestakuntza eskaintzen jarraitzeko. Horrela, urtean zehar 190 pertsonak hartu dute parte 28 prestakuntza ekintzetan.

Azkenik, Irungo eta Hondarribiko Turismo Bulegoek 41.713 bisitari hartu zituzten, baita 1.011 kontsulta ez-presentzial eta 21.256 internet bidez.

“Laguntza jaso duten pertsona ekintzaileen kopurua %80 hazi da. Era berean, ETEei egindako kontsultak eta diagnostikoak bikoiztu egin dira aurreko urtearekin alderatuta, eta prestakuntza-ekintzak eredu ez-presentzialera egokitu dira, herritarren beharrei erantzuteko, bai langabetuei zuzendutako ekintzetan, bai ekintzaileei eta enpresa-sareari zuzendutakoetan. Lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten kolektiboek aurrez aurreko arreta berriro hasi zen osasun arloko agintariek aukera eman bezain laster. Nabarmenezkoa da, halaber, turismo-bulegoen datua; izan ere, jende asko ibili da bertan, hilabetetan geldirik egon den sektorea izan arren”, nabarmendu du Miguel Ángel Páezek.

### Lana bilatzeko prestakuntza eta laguntza

2020an, ‘BIDA-LAN’ proiektua gauzatu da. Eskualdeko prestakuntza- eta enplegu-eragile eta -erakundeek asmatu, diseinatu eta garatutako lankidetzaproiektua da. Talde ahulenen prestakuntza, laguntza eta enpleguaren sustapena eta laneratzea izan dira helburuak.



Bestetik, “YOmeFORMOdesde CASA” proiektua pandemiaren ondorioz sortu zen. Hala, konfinamendu-hilabeteetan, orientazio-tailerrak egin ziren online formatuan (webinar). CVa hobetzeko tailerrak, lan-elkarrizketa bat egiteko tailerrak, Linkedineko tailerrak, etab.

### **Online prestakuntza-ekintzak eta networking topaketak enpresa eta pertsona ekintzaileentzat**

Pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, enpresek eta ekintzaileek negozioak berregokitu eta telelanera eta digitalizaziora bideratu behar izan zituzten. Ildo horretatik, Bidasoa bizirik-ek on line prestakuntza-ekintzak eta networking topaketak egin ditu urte osoan, baita streaming bidez egin diren ekitaldiak ere; horien artean, KREA Bidasoa nabarmentzen da. Guztiek oso harrera ona izan dute.

Bestalde, Bidasoa bizirik-ek paper aktiboa izan du Irungo Udalak Irun Aurrera programarekin eta Hondarribiko Udalak Itxeki Hondarribiarekin abian jarri zuten Covid-19 enpresek krisiari aurre egiten laguntzeko talka-planak diseinatzen, definitzen eta ezartzen.

### **‘Via Irun’-ren esparruan egindako azterlanak**

‘Via Irun’ proiektuari dagokionez, joeren azterketa eta aukeren azterketa egin dira, e-mobility, garraio eta logistika aurreratua eta retail 4.0 sektoreetan jarduera ekonomiko berria sortzeko. Gainera, ‘Emakumeak e-mobility, garraio eta logistika aurreratuaren eta retail 4.0ren sektoreetan integrazteko muga azterketa’ egin da.

Bestalde, ‘Hazinnova. Berrikuntzara sartzeko atea’ programa nabarmendu behar dugu, SPRIK eta Innobasquek bultzatua. Bidasoa bizirik Hazinnova eragile gisa parte hartu du eskualdean, eta 22 enpresari lagundu die etorkizuneko berrikuntza-ekintzen oinarriak ezartzen dituzten proiektuak atzematzen.

Halaber, COVID-19 delakoaren barruan, enpresentzako eta herritarrentzako informazio interesgarria eguneratzea indartu da, batez ere enpresa, merkataritza eta ostalaritzarako laguntzei buruzko informazioa eskainiz.

### **Irun eta Hondarribiko baliabideak sustatzeko Dinamizazio Turistikoko Plana**

Eskualdeko eragile turistikoekin batera, 2020. urtean ‘Hondarribia eta Irungo dinamizazio turistikorako plana’ garatu da. Helburua da eredu turistikoa lortzea, lehiakortasunaren hobekuntza batera lantzeko eta baliabideak modu iraunkorrean sustatzeko balioko duena.



Bestalde, 'Kalitate programa. Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa'-n parte hartu da, EAEko eragile turistikoek praktikan erantzukizuna eta jasangarritasuna sar ditzaten nahi duena. 2020an, Hondarribia eta Irungo 12 enpresa atxiki zaizkio ekimen horri, iraunkortasunarekiko konpromisoa eta erantzukizuna erakusteko.

### **SMARTMOBen proiektua: mugikortasun iraunkorraren sustapena**

Irungo Udalarekin, Hondarribiko Udalarekin, Hendaiaiko Udalarekin eta Mobilité-Agglomératin Pays Basque-ko Syndicat-ekin elkarlanean, SMARTMOBproiektua jarri da abian, hiru hirietan mugikortasun jasangarria sustatzea helburu duena.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, kirol diziplina desberdinetako federazio araudiei buruzko azterketa juridikoa eguneratu da.

### **·Zenbait datu sozioekonomiko**

Datu sozioekonomikoei dagokienez, pandemiak ere eragin die. Lanbidek emandako azken datuen arabera, Bidasoa Beherako biztanleria aktiboa 37.114 pertsonakoa da. Abenduaren 31n Lanbiden izena emandako langabeziako biztanleriari dagokionez, 4.374 langabe zenbatu dira, hau da, biztanleria aktiboaren %11,8ko langabezia-tasa zenbatetsi da.

Horrek esan nahi du langabezia %9,9 igo zela 2019ko hilabete berarekin alderatuta, nahiz eta hazkunde hori Lurralde Historikokoa baino txikiagoa izan, bertan %13,6 handiagoa izan baitzen. Hala, urtea % 11,8ko langabezia-tasarekin amaitu zen eskualdean, eta Gipuzkoan, berriz, % 9,8rekin. Zerbitzuen sektorea izan zen langabezia horren % 72. Lan-merkatuko azken datuak kontuan hartuta, esan daiteke tasa hori hobetzen ari dela, eta eskualdea 2020ko amaierako tasaren azpitik dagoela dagoeneko (%11,2ko ekainan).

Gainera, eskualdeko biztanleriak hazten jarraitzen du: 80.258 biztanle, Gizarte Segurantzaren afiliatutako 23.904 pertsona eta 12.451 ikasle eskualdeko ikastetxeetan.

Era berean, 2020an formalizatutako kontratuen kopurua 19.167 da. Kontratu kopurua %28 jaitsi da eskualdean, 2019koarekin alderatuta; Gipuzkoan, %29,3. Murrizketa horrek eragin handiagoa izan du zerbitzuen sektorean (establezimendu guztien %78). Alde horretatik,



nabarmentzekoa da Gipuzkoan egindako kontratuen guztizkoarekiko eskualdeko kontratuen partaidetza %9,2koa dela, aurreko urteko ehunekoaren antzekoa.

Era berean, eta COVID19 delakoaren ondorioz, 2020an 19.167 kontratu egin ziren, kopuru hori %28 jaitsi da 2019. urtearen aldean. Gipuzkoan eragin handiagoa izan du, %29,3 murriztu baita. Murrizketa horrek eragin handiagoa izan du zerbitzuen sektorean (establezimendu guztien %78 da). Alde horretatik, nabarmentzekoa da Gipuzkoan egindako kontratuen guztizkoarekiko eskualdeko kontratuen partaidetza %9,2koa dela, aurreko urteko ehunekoaren antzekoa. Kopuru horiek nabarmen hobetu dira 2021ean.

Sektore ekonomikoei dagokienez, hirugarren sektoreak du pisurik handiena, guztira 4.954 establezimendu baitaude, 21.102 pertsonari lana ematen dietenak. Horren barruan, txikizkako merkataritza nabarmentzen da, 943 establezimendurekin; horietatik %84 Irunen daude eta %16 Hondarribian.

Lehen sektorean, Hondarribiko flotaren arrantza-jarduera nabarmentzen da: 26 ontzi dituen. Industriak, berriz, 377 establezimendurekin, 4.091 pertsonari ematen die lana eta eraikuntzak 1.500 pertsonari.

Establezimenduen guztizko kopuruak behera egin du pixka bat 2019. urtearekin alderatuta (%4,3), nahiz eta enplegua berdin mantendu, Donostian eta beste udalerrri batzuetan gertatu den bezala. Sektoreka, arlo horretan gehien zigortu dena merkataritza izan da, %6 gutxiago, eta atzetik ostalaritza, %3 gutxiago.

Azkenik, 2020an, eskualdeak 43 ostatu-establezimendu zituen, 2.533 plazekin. Aurten, bisitarien batez besteko gauda 1,2 egunekoa izan da. Alde horretatik, kontuan hartu behar da konfinamenduak eragin handia izan zuela mugikortasunean, besteak beste. Ez dugu ahaztu behar mugikortasun murrizketek eragin nabarmena izan dutela sektore horretan. Hori dela eta, Bidasoa Beherako hotel-okupazioa 2018-2019an% 70etik gorakoa izatetik 2020an% 39koa izatera pasatu da. Era berean, esanguratsua da Renfeko eta Euskotreneko bidaiarien kopurua, 2020an %40 eta %30 gutxitu baitziren, hurrenez hurren. Donostiako aireportuan bidaiari kopurua %65 jaitsi da. Hala ere, datu hauek asko hobetzen ari dira 2021ean.



Bidasoa activa  
Bidasoa bizirik